

## V. PAZKO IGANDEA (C)

### Otoitza

Jainko Jauna,  
Zuk gaituzu salbatzen eta zeure seme-alabatzat hartzen;  
ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak;  
eta Kristorengan sinesten dugunoi  
emaguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 14, 20b-26

*Beren bidez Jaungoikoak egindako guztia  
azaldu zioten elkarteari.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Listarra, Ikoniora eta Antiokiara itzuli ziren; sendotu zituzten ikasleen bihotzak eta berotu, sinesmenean iraun zezaten, Jaungoikoaren erreinuan neke asko igarota sartu behar dugula jakin eraziz. Eliza bakoitzean arduradunak izendatzen zituzten, otoitz eta barau egiten zuten, eta beraiek sinesmenean onartutako Jaungoikoaren eskuetan uzten zituzten.

Pisidian zehar, Panfiliara joan ziren; eta Perjen hitza hotsegin ondoren, Ataliara jaitsi ziren; eta handik itsasoz, berriro irtenlekura jo zuten, Antiokiara, handik izan baitziren bidaliak, hain zuzen, Jaungoikoaren graziarekin bete zuten eginkizunerako.

Irtisi zirenean elkartea bildu zuten, eta beren bidez Jaungoikoak egindako guztia azaldu zioten, baita nola Jaungoikoak sinesmen atea jentilei zabaldu zien ere.

ERANTZUN SALMOA: Sal 144, 8-9. 10-11. 12-13ab

R/. **Ene Jainko, ene Errege,  
bedeinkatuko dut zure izena betiere.**

Edota: **Aleluia.**

Kupibera da Jauna eta errukiorra,  
berant-haserre eta guztiz onbera.  
Ona da Jauna guztientzat,  
errukior, Berak egin dituenentzat. R/.

Jauna, zure lan guztiek ospa zaitzate,  
zure zintzoek bedeinka zaitzate.  
Zure erregetza zein bikain den aitor bezate,  
zure ahal izateaz hitzegin bezate. R/.

Ezagutaraz biezaie gizakiei zure bizkortasuna,

zure erregetza ospetsuaren bikaintasuna.  
Zure erregetza, mende orotako erregetza,  
gizaldiz gizaldi zure nagusitza. R/.

II. IRAKURGAIA: Ap 21, 1-5a

*Begietako malkoak txukatuko dizkie.*

Apokalipsis liburutik

Nik, Joanek, zeru berri bat eta lur berri bat ikusi nituen; lehenengo zerua eta lehenengo lurra joan baitziren; eta itsasorik ere ez zegoen.

Hiri santua ikusi nuen –Jerusalen berria–, bere senargaiarentzat apaindutako andregaia bezala, zerutik Jainkoarengandik jaisten. Eta oihu haundi bat entzun nuen aulkitik: «Hona hemen Jaungoikoaren etxola gizakien artean; haien artean biziko da. Haiek izango ditu bere herri; eta "Jaungoikoa-haiekin" izango da haien Jainko.

Begietako malkoak txukatuko dizkie. Ez da izango gehiago, ez heriotzarik, ez negarrik, ez garrasirik, ez atsekaberik. Lehengoak joan baitira».

Aulkian zegoenak esan zuen: «Orain gauza guztiak berri egiten ditut».

EBANJELIOA: Jn 13, 31-33a. 34-35

**Aleluia:** Ikus Jn 13, 34

R/. Aleluia.

V/. Agindu berri bat ematen dizuet –dio Jaunak–:  
maita ezazue elkar,  
Nik maite izan zaituztedan bezala. R/.

*Agindu berri bat ematen dizuet:  
maita ezazue elkar.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Judas afaltokitik atera zenean, Jesusek honela esan zien: «Orain izan da goretsia Gizonaren Semea, eta Jaungoikoa goretsia izan da Harengan. (Jaungoikoaren aintza agertu baita Harengan, Jaungoikoak Berak agertuko du Gizonaren Semearen aintza; eta laster gainera).

Ene semeok, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Agindu berri bat ematen dizuet: maita ezazue elkar. Bai, Nik maite izan zaituztedan bezala, zuek ere maita ezazue elkar. Honetan ezagutuko dute guztiak, nire ikasleak zaretela: elkar maite baduzue».

**Oparigaien gainekoa**

Jainko Jauna,  
opari honetako harreman miragarriari esker,  
zeure jainkotasunean parte ematen diguzu;  
egizu, sinesten dugun egia egintzetan aitortu dezagula.  
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

### **Jaunartze ondorengoa**

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin;  
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei  
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,  
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.  
Jesu Kristo.